

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Sabaizako finka (Ezporogi), azienda autoktonoa hazteko erreferentziako zentroa

*Foru Gobernuak zaldi nafarraren 230 ale eta betizu pirenaikoaren 40 ale zaintzen ditu Nafarroako baso-ondareari atxikitako finka honetan*

Osteguna, 2018.eko abuztuak 16

Sabaizako finka (Ezporogi), Foru Komunitateko baso-ondareari atxikitakoa, Nafarroako azienda autoktonoaren eta bereziki galtzeko arriskuan dagoen zalditxo nafarra delako arrazaren hazkunderako erreferentziako zentro bilakatu da.



Elizalde kontseilaria, bisitaren une batean (Egilea: INTIA).

Finkak 3.400 hektareako luze-zabala du eta zalditxo nafarraren 230 ale ditu gaur egun, baina betizu pirenaikoaren 40 ale ere, berriz ere hazteko, Sabaizan bertan kokatuta dauden bi saroï estaliren eta Gardalaingo txabola baten laguntzaz.

Finkaren instalazioetara egin berri duen bisitaren ondoren, Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilari Isabel Elizalde departamentuak azienda autoktonoa berreskuratzeko proiektu honen alde egin duen apustua berretsi eta instalazio hauek hobetzeko inbertsioak bideratu behar direla nabarmendu zuen, bertan egiten ari den lanaren garrantzi, espezializazio eta kalitatearen harira. Natura Ingurumenaren Zerbitzua Sabaiza kudeatzeaz arduratzen da [GAN-NIK](#) (Nafarroako Ingurumen Kudeaketa) enpresarekin batera, eta [INTIA](#) enpresa publikoak desagertzeko arriskuan dauden azienda-arraza autoktonoak zaintzen ditu finka honetan, Nafarroako Baso Ondareko beste batzuetan egiten duen bezalaxe. Sabaizan mantentzen ari den zalditxo nafarraren populazioaz gain, INTIAk galtzeko arriskuan dagoen betizu izeneko Europako azken basa-behiaren talde bat mantentzen du Sastoiari (Urraulgoiti).

**Instalazioak  
hobetzeko nahiz klima  
aldaketara egokitutako  
oihantzaintzan eta larreetan  
esperimentatzeko  
inbertsio berriak**

Horren harira, Elizalde  
kontseilari buru duen  
Departamentuak 122.304

euroko inbertsioa aurreikusia du 2018rako behi-azienden nabea egokitzeko eta ur-instalazioa, biltegia nahiz larreak hobetzeko, eta horrekin batera, Nafarroa klima-aldaketara egokitzea xede duen [LIFE NADAPTA](#) europar proiektuak

kofinantzuriko 114.000 euroko inbertsio osagarria ere egingen da. Azken honen bitartez, luberritze-lanak, suebakiak, sastraka kentzeko lanak, itxiturak, ereiteak, bideak, ur-putzuak, teknifikazioa eta finkarako beste ekipamendu batzuk bideratuko dira.

LIFE NADAPTA proiektuaren bazkidea den aldetik, INTIAk Sabaizara eraman du klima-aldaketak ekosistema mediterraneoan eragin dezakeen kalte-arriskuari buruzko esperimentazioa. Hartara, eredutzat erabil daitekeen oihantzaintza nahiz abeltzaintzarako maneiu-sistema bat proposatu eta monitorizatzea da Nadaptak Sabaizarako duen helburua, betiere klima-aldaketara egokitzeko gaitasun handiagoa duten oihan-masen eta larren mesedetan eta Sabaiza bezalako mendi mediterraneoetan gerta daitezkeen suteen aurka borrokatzen laguntzeko asmoz. Laburbilduz, azientak mendietan behar bezala maneiatuz gero, sute arriskua murrizteko aukera dagoela frogatu nahi da.

**Zalditxoak kontserbatzeko maneiua**

2008az geroztik, finkan, azientak maneiatzeko hiru unitate handi daude: Sabaiza, Gardalain eta Julio, eta hirurek era autonomoan funtzionatzen dute.

Hiru abeltzaintza hauen bideragarritasuna bermatzeko eta finka oihantzaintzaren irizpideen arabera kudeatzeko, 2018ko udazkenean Julioko unitateko instalazioen osagarri gisa baliatuko diren 16 hektarea larre eta abeltzaintzan erabiltzeko behar den azpiegitura prestatzea aurreikusi da.

Zaldien maneiuari dagokionez, helburua zaldi nafarren taldearen arraza-garbitasunari eutsi eta, ahal den neurrian, ugaritzea da.

Estaltzeen ondoren, ugalketaren kontrola antolatzen da, eta udan, ekografien laguntzaz egiten da ernaldien jarraipena. Irailean, arreak baztertu eta saraira eramaten dira, eta azaro-abenduan, emeak bildu, parasitoak garbitu eta titia kentzen zaie zaldikumeei. Ondoren, bizirik jarraituko duten animaliak aukeratzen dira, jakitzat erabiliko direnetatik bereiziz, eta emeek negua eta udaberria bazkalekuan igarotzen dituzte.

Aziendaren maneiu honen helburua, zaldien taldea mantentzen laguntzeaz gain, finkaren lursailean ekoizpen orekatua bultzatzea da (larreetan nahiz basoetan), gehiegizko abeltzaintza baztertuz eta erosio arriskua nahiz gutxiegiako abeltzaintzari lotutako sasitzaren hazkundera eta sute arriskua saihestuz. Sistema hau eredu gisa erabili ahalko da Nafarroako mendi mediterraneoaren zati handi batean.



Zalditxo nafarraren alea (Egilea: INTIA).